



*“Hesiaren ostean geratu ginen ixilik, basozaina etxera bidean noiz pasatuko zain. Zeruan izar batzuk pizten hasi ziren eta gure atzean, sortaldeko muinoen gainean, ilargia bere burua erakusten hasi zen dirdira betean”.* Paragrafo xume bezain eder honek ederki darakutsa literaturaren lilura eta eder-indarra norainokoak diren. “Ixtorio Hautatuak” liburuko ipuinetako bati dagokio, Roald Dahl du egile eta Luis Berrizbeitia itzultzaile; Elkar argitaletxeak argitaratua da, 1996an. Berrizbeitiak eginiko lana hain da ederra, non gehiago merezi baitu “idazle” izena “itzultzaile” izena baino. Biba zu!